



areatza

Uztaila 2018 *Julio* 23 zk.

lantzen

**Musikak
hartu du
Areatza**



- Aldaketak igerilekuetan
- Jubilatuen Etxe berriaren inaugurazioa
- Herriko gazteak saridun
- Euskara ikasteko %100eko finantzaketa

Irudia: Hodei Torres.

Telefonoak



Areatzako Udala

946 73 90 10

Parketxea

946 73 92 79

Gorbeialde Elkarte

946 31 55 25

Arratiako Udalen
Mankomunitatea

946 31 17 17

S.O.S Deiak

112

Medikuaren kontsulta

946 00 74 63

Galdakaoko Ospitalea

944 00 70 00

Botika

946 73 93 22

Autobusak

Bizkaibus 902 22 22 65

La Unión 944 27 11 11

CEPSA

Larrialdiak (24 ordu)

902 10 02 24

Bezeroarentzako arreta
(24 ordu) 902 41 64 16

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

944 87 31 87

Iberdrola

944 15 14 11

Indarkeria matxistaren
aurkako telefonoa

900 84 01 11

Udal Sareak

944 87 31 87



Guardiako botikak

Uztailaren 2tik uztailaren 8ra

Zamalloa Asua, M^a Arantza. Areatza.
Askatasuna kalea, 15. Tel: 94 673 93 22

Uztailaren 9tik 15era

Arrieta Bereciartua, Naiara. Lemoa.
Atutxa Salburua, 1. Tel: 94 631 30 18

Uztailaren 16tik 22ra

Ibarrola Merino, Esther. Zeanuri. Arregia,
z/g. 94 673 93 95

Uztailaren 23tik 29ra

Traver Nicolau, Eduardo. Bedia. J. A.
Agirrearen enparantza, z/g. 94 631 39 50

Uztailaren 30etik abuztuaren 5era

Ibarrola Merino, Esther. Zeanuri. Arregia,
z/g. 94 673 93 95

Abuztuaren 6tik 12ra

Arrieta Bereciartua, Naiara. Lemoa.
Atutxa Salburua, 1. Tel: 94 631 30 18

Abuztuaren 13tik 19ra

Zamalloa Asua, M^a Arantza. Areatza.
Askatasuna kalea, 15. Tel: 94 673 93 22

Abuztuaren 20tik 26ra

Ibarrola Merino, Esther. Zeanuri.
Arregia, z/g. 94 673 93 95

Abuztuaren 27tik irailaren 2ra

Rodríguez Martínez, M^a Purificación.
Igorre. Lehendakari Agirre, 27.
Tel: 94 673 61 09

Irailaren 3tik 9ra

Ibarrola Merino, Esther. Zeanuri.
Arregia, z/g. 94 673 93 95

Irailaren 10etik 16ra

Badiola Uriarte, M^a Nekane. Artea.
Herriko plaza, 7. Tel: 94 631 73 11

Urte osoan 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles, Miren Nekane.
Urbi, 15. Basauri. Tel: 94 449 44 26

Autobus ordutegiak

Bizkaibus

Zeanuri-Lemoa-Galdakaoko ospitalea-Bilbo

Lanegunetan/Laborables:
(lehenengo/inicio) 05:00etan

(ordu erdiro/cada media hora) 05:15etik 06:45era

(orduro/cada hora) 06:45etik 21:45era

Larunbatetan/Sábados:
(lehenengo/inicio) 05:00etan
(orduro/cada hora) 05:45etik 21:45era

Jaiegunetan/Festivos (orduro/cada hora) 07:45etik 21:45era

Bilbo-Galdakaoko ospitalea- Zeanuri

Egunero/Diario (orduro/cada hora) 06:15etik 22:15era

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

*(Ubidetik irteerak/Salidas desde Ubide)

Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados

(bi orduro/cada dos horas) 06:45etik 20:45era

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) 08:45etik 20:45era

*(Otxandiotik irteerak/Salidas desde Otxandio)

Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados
(orduro/cada hora) 06:55etik 20:55era

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) 08:55etik 20:55era

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Egunero/Diario 06:45etik 20:45era

*Otxandiora/a Otxandio (orduro/cada hora)

*Ubidera/a Ubide (orduro/cada dos horas)

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables 07:00etan eta orduro 08:15etik 21:15era

Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos (ez dabil/no circula)

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables (orduro/cada hora) 07:00etatik 21:00etara

Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos (ez dabil/no circula)

Adi udako ordutegiari abuztuan.

IGERILEKUAK IAZKO ENPRESA BERAK
KUDEATUKO DITU

Igerilekuak kudeatzeko Udalak iaz deitutako deialdian bi enpresa aurkeztu ziren, eta irabazlea Larrialdi, salbamendu eta sorospen zentroa izan zen, 38.500 euroko kontratuaren truke. Hala, kontratua luzatzeko aukera zegoenez, iaz zerbitzua eman zuen enpresa berak emango du zerbitzua aurtan ere, kopuru berean.

LA MISMA EMPRESA SE ENCARGARÁ
DE LA GESTIÓN DE LAS PISCINAS

El año pasado se presentaron dos empresas a la convocatoria para gestionar las piscinas, y la ganadora fue Centro de emergencias, salvamento y socorrismo, con un contrato de 38.500 euros. Este año también lo gestionará la misma empresa, ya que el contrato contemplaba una prórroga.

ALDAMIN JATETXEAREN
ADJUDIKAZIODUNA ALDATU EGIN DA

Aurreko adjudikaziodunak ekainean utzi zuen Aldamin Jatetxea, eta, horrenbestez, adjudikazio prozesu berria jarri zen martxan. Oraingo honetan adjudikazioa hiru hilabeterako esleitu da, uda garairako, alegia, eta kontratua lehiaketara atera ondoren, hautagai bakarra aurkeztu da. Kontratua esleitzeko eskaintza ekonomikoa hartu da kontratuan. Izapidetze lanak bukatu bezain laster irekiko da taberna.

Jatetxea berandu irekitzeak herritarrei sorrarazitako eragozpenak ahalik eta txikiak izateko ahalegina egin du Udalak.

NUEVO ADJUDICATARIO PARA ALDAMIN
JATETXEA

El anterior adjudicatario dejó el restaurante Aldamin en junio, por lo que se abrió un nuevo proceso de adjudicación. Esta vez será solamente para tres meses, y se ha presentado una única candidatura. El local se abrirá al público tan pronto como finalicen los trámites.

El ayuntamiento ha hecho todo el esfuerzo posible para que la apertura tardía del local cause las mínimas molestias posibles a los/as vecinos/as.

HAINBAT EGOKITZAPEN LAN
EGIN DIRA IGERILEKUETAN

Areatzako Udalak hainbat egokitzen lan egin ditu igerilekuetan, uda aldera udal instalazioak prestatzeko eta moldatzeko. Hala, besteak beste, belar berria erein da; izan ere, orain arte zegoen belarra dagoeneko goroldio bihurtuta eta egoera txarrean zegoen; horrenbestez, udal brigadako langileek erein dute belarra eta igerilekuak irekitzean prest egon da; halaber, orain arte igerilekuetan zeuden zuhaixkak kendu egin dira, argitasuna eta lekua irabazteko.

Horrez gain, aurtan makinerian egin da inbertsiorik handiena. Izan ere, lau motorren kasuan konponketa lanak egin dira eta kasu batzuetan aldatu egin behar izan dira. Bidenabar, beharrezkoa izan da kloroa dosifikatzeko makina ere egin dira. Orotara, aurtan egindako inbertsioa 20.000 euro baino gehiagokoa izan da.

SE HAN HECHO VARIAS
MEJORAS EN LAS PISCINAS

El Ayuntamiento de Areatza ha realizado varias mejoras en las piscinas para que las instalaciones estén listas para la nueva temporada. Entre otros trabajos, la brigada municipal ha sembrado nueva hierba, pues la que le precedía estaba en mal estado y convertida en musgo. Además, se han retirado los arbustos para que entre más luz y para que haya más espacio.

Sin embargo, la mayor inversión se ha hecho en la maquinaria; se han arreglado cuatro motores y en algunos casos ha habido que cambiarlos. También ha sido necesario arreglar la máquina dosificadora de cloro, y se han hecho también pequeños arreglos. En total, la inversión realizada este año ha sido de más de 20.000 euros.

areatza
lantzen

Argitaratzailea: Areatzako Udala
Lege Gordailua: BI-906-2016
Diseinua Diseinu eta
eta maketazioa: Komunikazioa
Aulesti S.L.

www.diseinuetakomunikazioa.eus

HAINBAT ALDAKETA UDAL LANGILEEN PLANTILAN

Udaleko langileen artean hainbat aldaketa izan dira azkenaldian; izan ere, alde batetik Udaleko Langileen Zerrendan (RPT, gaztelaniaz) 2012. urtetik hutsik zegoen lanpostu bat betetzeko deialdia egin du Udalak, eta, beste aldetik, zenbait langileren kasuan mugimendu profesionalak izan dira.

Udalarentzat giza baliabideen lantaldea handitzea eta areagotzea lehentasunezko gai bat da; izan ere, horri esker zerbitzu hobea eta profesionalagoa eskainiko zaie herritarrei.

Administrari lanpostuaren deialdia

Areatzako Udalak administrari lanpostu bat betetzeko deialdia egin zuen martxoan; izan ere, Udalaren giza baliabideak urriak dira eta lanpostua Langileen Zerrendan aurreikusita bazegoen ere, 2012. urtetik bete gabe egon da; hartara, administrari postua betetzeko deialdia egin da, prozesu horretan 54 pertsona aurkeztu ziren. Izapideak bideratu ondoren, azkenean 33 pertsona aurkeztu ziren maiatzaren 29an abiatutako oposizio prozesuan. Oposizioa bukatuta, administrari postua beteko duen langilea kontratatzeko izapidetze lanetan ari da Udala.

Idazkari kontu-hartzaile berria

Orain arte Areatzako Udalean lanean izan den idazkari kontu-hartzaileak maila profesionalen promozionatzeko hautua egin ostean, idazkari kontu-hartzaile berria lortzeko prozesua zabaldu du Udalak; hala, prozesu horretan 18 pertsona aurkeztu dira eta oposizio prozesua uztailearen 16an abiatuko da.

Brigadako langile berria

Brigadako lantaldeak lan karga handia dauka, eta, horren ondorioz hirugarren langile bat kontratu du Udalak; irailera arte izango da gure artean.

CAMBIOS EN LA PLANTILLA MUNICIPAL

Ha habido varios cambios en la plantilla municipal; por un lado, el ayuntamiento ha realizado la convocatoria para cubrir un puesto vacante en la Relación de Puestos de Trabajo desde 2012, y por otro lado, ha habido movimientos de índole profesional.

La ampliación de la plantilla es un tema prioritario para el Ayuntamiento, ya que gracias a unos mayores recursos humanos se podrá ofrecer un servicio más óptimo y profesional a la ciudadanía.

Convocatoria para administrativo/a

El Ayuntamiento realizó en marzo la convocatoria para cubrir el puesto de administrativo/a, ya que dicho puesto se encontraba sin cubrir desde el año 2012. Así, en la convocatoria se presentaron 54 personas, y finalmente se presentaron 33 personas al examen del 29 de mayo. Finalizada la oposición, el Ayuntamiento se encuentra ahora realizando el procedimiento para la contratación de la persona profesional.

Nuevo/a secretario/a interventor/a

Después de que la secretaria optara a promocionarse profesionalmente, el ayuntamiento ha abierto el proceso para cubrir dicho puesto. En total se han presentado 18 personas, y el proceso de oposición arrancará el 16 de julio.

Nuevo trabajador en la brigada

La brigada tiene ahora una gran carga de trabajo, por lo que se ha accedido a contratar a una tercera persona; trabajará en Areatza hasta septiembre.

BULEGO MUGIKORRAK ORDEZKATUKO DU UDAN ENPLEGU BULEGOA

Udarekin batera, aurten ere, itxi egin da Enplegu Bulegoa. Hala ere, Lanbidek urte osoan eskaintzen duen bulego mugikorraren zerbitzuari esker, datozen hilabeteetan ere ibilgailu bat etorriko da Areatzara, behar duenak laguntza eta aholkularitza zerbitzua jaso dezan.

Enplegu bulego egonkorra Arratiako Udalen Mankomunitatearen eta Areatzako Udalaren elkarlanari esker egon da zabalik azken hilabeteetan, Askatasuna kaleko 34. zenbakian. Bulegoan arlo honetako teknikari batek laguntza eskaini die bertara hurbildutako guztiei, lan eskaintzetan aurkezteko zein curriculum atontzeko.

EL SERVICIO MÓVIL SUSTITUIRÁ A LA OFICINA DE EMPLEO DURANTE EL VERANO

Un año más, durante la temporada estival, la oficina de empleo cerrará sus puertas. Sin embargo, los/as vecinos/as podrán seguir utilizando el servicio móvil que ofrece Lanbide, ya que ese dispositivo seguirá acudiendo a Areatza, donde ofrecerá ayuda y asesoramiento a quien lo necesite.

La oficina de empleo ha permanecido abierta en los últimos meses gracias a la cooperación entre la Mancomunidad y el ayuntamiento, en el número 34 de la calle Askatasuna.

BASOEN USTIAPENA ENKANTERA ATERAKO DA HIRU LOTETAN BANATUTA

2018an egingo diren basoen ustiapenentarako enkanteetako baldintza ekonomikoen pleguak onartu ziren maiatzaren 24ko osoko bilkuran. Hala, mehaketak 103,9 hektareatan egitea aurreikusi da, eta erdi mailako mozketak izango dira; azken urteetan bezala, ez da arraseko aprobetxamendurik egingo. Moztuko diren espezieei dagokienez, Radiata eta Larizio pinuak, Lawson altzifrea eta Douglas izeia izango dira.

Enkantea hiru lotetan banatuta egingo da, urtaroren arabera (udan eta neguan) eta zuhaitzen aprobetxamenduaren arabera (egurrerako edo papere-rako diren) banatuta. Lizitazio honen zati batzuk iaz ere atera ziren lehia-ketara, baina hutsik geratu zen kontratua bi alditan, inor ez zelako aurkeztu deialdietara.

Baso ustiapenen tasazioa 154.437 eurokoa da, 2018ko aurrekontuetarako aurreikusitakoa baino apur bat handiagoa.

LA EXPLOTACIÓN FORESTAL SE SUBASTARÁ EN TRES LOTES

Las explotaciones forestales de este año se realizarán sobre una superficie de 103,9 hectáreas y serán de cortas intermedias, tal y como se aprobó en el pleno del 24 de mayo. En cuanto a las especies que se cortarán se encuentran pinos Insignis y Laricio, ciprés Lawson y abeto Douglas.

La subasta se realizará en tres lotes diferenciados en función de la época del año y del tipo de aprovechamiento (madera o papel). Algunos de estos rodales se sacaron a subasta el año pasado, quedando desierto dos veces.

La tasación de la explotación asciende a 154.437 euros, algo superior a la prevista en los presupuestos.

Bulego mugikorraren ordutegia:

● UZTAILA (JULIO)

Uztailak 4, 09:00-11:00

Uztailak 18, 09:00-11:00

● ABUZTUA (AGOSTO)

Abuztuak 1, 09:00-11:00

Abuztuak 29, 09:00-11:00
(lekua zehazteke / lugar a concretar)

● IRAILA (SEPTIEMBRE)

Irailak 12, 09:00-11:00

Irailak 26, 09:00-11:00





JUBILATUEN ETXE BERRIA INAUGURATU DA

Jubilatuen Etxeko lokal berria ekainaren 8an inauguratu zen, zenbait asteko lanaren ondoren. Lehen zegoena baino espazio handiagoa lortu da posta bulegoak hartzen zuen espazioa bereganatu duelako. Lokalak, guztira, 110,41 metroko azalera dauka orain. Horrez gain, egin diren lanen artean, komunak elbarrituentzat edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitu dira, eta terraza kristalez estali da, erabili ahal izateko.

Hala, orain arte behin-behinean erabiltzen zen lokaleko elementuak lokal berrira eraman ditu Jubilatuen Elkarteak eta lokal berria erabiltzen hasi da. Inaugurazio ekitaldian, udal ordezkariak, hitz gutxi batzuk esan ondoren, herriko Gerardo Lapatzak egindako kartel berria oparitu zion elkarteari, lokalaren sarreran jartzeko.



SE HA INAUGURADO EL NUEVO LOCAL DEL HOGAR DE LOS/AS JUBILADOS/AS

El 8 de junio se inauguró el nuevo local del Hogar de los/as Jubilados/as. Con las obras realizadas durante varias semanas, el local cuenta ahora con 110,41 metros cuadrados; además, se han adaptado los baños para las personas con movilidad reducida y se ha cubierto la terraza con cristal.

En el acto de inauguración el alcalde, en nombre del ayuntamiento, hizo entrega de un obsequio, que consistía en una creación de Gerardo Lapatza, para colocarlo en la entrada del local.



ALDAKETAK ELKARTEAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAN

Lokal berria estreinatzeaz gain, Areatzako Uparan Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarteak Zuzendaritza Batzorde berria ere badauka; izan ere, aurreko zuzendaritza taldeko kideek 8 urteko tartea bete ondoren kide berriek hartu dute orain lekukoa, ilusioz eta lanerako gozoz. Hala, Alicia Gurtubay da orain lehendakaria, Ines Prior idazkaria, Iñaki Artetxe diruzaina eta Karmen Amuriza lehendakariordea; Txetxe Garcia ere zuzendaritza kidea da. Dagoeneko aurtengo programazioko hainbat jarduera prestatu dituzte eta datorren urterako aukera desberdinak ere aztertzen ari dira.

SE HA RENOVADO LA JUNTA DIRECTIVA

Junto al nuevo local, la Asociación de Jubilados/as y Pensionistas de Areatza cuenta ahora con una Junta Directiva renovada. Alicia Gurtubay ostenta ahora el cargo de presidenta, Ines Prior ocupa el cargo de secretaria, Iñaki Artetxe es el nuevo tesorero y Karmen Amuriza es vicepresidenta; Txetxe Garcia es vocal de la junta directiva. Han organizado numerosas actividades para este año y ya están estudiando distintas opciones para el año que viene.

MARTXAN DA JAZARPENAREN PREBENTZIORAKO LANTALDEA

Haur eta gazteek pairatzen duten jazarpenaren inguruan modu koordinatuan lan egitea helburu duen lantalde bat sortu dute kolektibo horiekin lan egiten duten eragileek. Dagoeneko hainbat bilera eta lan batzar egin dituzte eta epe luzearako proiektu bat lantzen ari dira, lantaldearen helburu zehatzak eta funtzioak zehaztuz eta metodologia eta bestelako alderdiak jorratuz.

Lantalde horretan udaleko ordezkariak, Areatzako Eskolako irakasleak, Areatzako Eskolako guraso elkarteko kide bat eta ludoteka eta gaztelekuaz arduratzen den enpresako hezitzaile bat daude. Horiez gain, lantaldeko parte da Iñigo Ramos Otxandioko Eskolako zuzendaria ere; izan ere, Otxandioko Eskolak esperientzia luzea du horrelako gaiak jorratzen eta konpontzen, eta bertan ikasitakoa gurera aplikatzea da asmoetako bat, herri mailara moldatuz. Tarteka, Arratiako Udalen Mankomunitateko prebentzio teknikaria eta Igorreko Institutuko guraso elkarteko kide bat ere izan dira bileretan.

Lantaldean egon ez arren haur eta gazteekin lan egiten duten bestelako arduradunei ere ekimenaren berri eman zaie, besteak beste, jantokiko begiraleei. Bidenabar, aurrerantzean haur eta gazteekin lan egiten duten bestelako eragile batzuk ere jakinaren gainean jartzea aurreikusi da, eskolaz kanpoko jardueretako begiraleak, esate baterako.

Lantaldea ez da sortu herrian jazarpen kasu zehatzen bat gertatu delako. Aitzitik, bullying edo jazarpenaren fenomenoak herri guztietan gertatzen den arazoa dela aintzat hartuta, Areatzako Udalak gai hau lantzen hasia erabaki zuen, prebentzioz jokatzeko eta horrelako zerbait gertatuz gero nola jokatu jakiteko tresnak emateko, betiere haur eta gazteekin lan egiten duten eragile guztiak koordinatuta eta elkarlanean aritze aldera.

EN MARCHA EL GRUPO DE TRABAJO PARA LA PREVENCIÓN DEL ACOSO ESCOLAR

Varios agentes que trabajan con el público infantil y adolescente han creado un grupo de trabajo para actuar de un modo coordinado. Hasta ahora han realizado numerosas reuniones y están desarrollando un proyecto a largo plazo, además de definir objetivos y funciones y trabajar otros aspectos como la metodología.

En el grupo de trabajo hay representación del Ayuntamiento de Areatza, del profesorado de la escuela, de la asociación de padres y madres de la escuela de Areatza y de la empresa que gestiona la ludoteca y el gazteleku. Además, el grupo también cuenta con la participación del director de la Escuela de Otxandio Iñigo Ramos, ya que en dicha escuela han realizado un largo recorrido tratando y trabajando temas de bullying. Puntualmente, también han acudido a algunas reuniones la técnico de prevención de la Mancomunidad de Municipios de Arratia y una compañera de la asociación de padres y madres del Instituto de Igorre.

Por último, se ha informado de la iniciativa a los/as monitores/as del comedor escolar, y está previsto trabajar también con los/as monitores/as de actividades extraescolares.

El grupo de trabajo contra el acoso escolar no se ha formado respondiendo a ningún caso en concreto; tiene un carácter preventivo y se quiere dotar a entidades que trabajan con menores con las herramientas necesarias para poder actuar en situaciones de bullying de un modo coordinado.

ETORRI BERRIENTZAKO GIDAK BANATUKO DITU UDALAK

Areatzako Udalak, UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearekin batera, herrira etorri berrientzako gidak prestatu eta banatuko ditu aurrerantzean. Gidak hainbat hizkuntzatan plazaratu dira, tartean arabieraz, ingelesez edota errumanieraz, eta Areatzara iritsi berri diren pertsonentzat hasierako eta oinarritzko azalpen eta informazioa bildu du, besteak beste, osasun zentroko telefono zenbakia.

Udaletxera gerturatzen direnek jasoko dute gida, doan eta ondoen egokitzen zaien hizkuntzan.

EL AYUNTAMIENTO REPARTIRÁ GUÍAS PARA LOS/AS RECIÉN LLEGADOS/AS

El Ayuntamiento de Areatza y UEMA han preparado sendas guías para repartir entre la población recién llegada al municipio. Las guías se han publicado en varios idiomas, como árabe, inglés o rumano, y reúne información básica. Es gratuita y se reparte en el ayuntamiento en el idioma que mejor se adapta a cada persona.



ORDENANTZA FISKAL BATZUK ALDATU DITU UDALAK

Areatzako Udalak Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ), igerilekuetako sarreren tarifak eta udalekuen tasak aldatu ditu.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen ordenantza

EIOZ eraikin bat egiten denean edo eraikin batean obrak egiten direnean aplikatzen den zerga da. Orain arte Areatzan ezarrita egon den zerga-tasa %5ekoa izan da, 10/1989 Foru Arauak onartzen duen tasarik altuena, hain zuzen ere.

Aurten, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoaren (EIT) ondorioz, obrak egin beharko dira Areatzako eraikin askotan. Obra batzuk gomendagarriak izango dira, eta egiteko epe luzea edukiko dute; beste batzuk, berriz, derrigorrezkoak izango dira, eta epe labur batean gauzatu beharko dira. Azken kasu horientzat ordaindu beharreko zerga-tasak hiru puntuko jaitziera edukiko du, hau da, %2koa izango da.

Zerga tasa berezi hori aplikatzeko, EIT txostenean esku-hartze maila berehalakoa, oso premiazkoa edo premiazkoa dela agertu beharko da.

Igerilekuak sarreren tasak

Orain arte indarrean egon diren tasak aplikatuz gabeziak sortzen ziren, esaterako ez zirelako kontuan hartzen familia egitura desberdinak; hala, adibidez, ez zegoen argi sarrera nola ordaindu behar zuten seme-alabak dituzten dibortziatutako bikoteek, edo seme-alabak izanik lege ziurtagiririk ez daukaten bikoteek. Horre-

tarako hainbat hilabete iraun duen lan prozesua bideratu da, eta tartean interesdunek proposamenak aurkezteko tartea ere zabaldu da; inork ez du proposamenik egin.

Hala, orain onartutako ordenantza berriarekin doan sartzeko gehieneko adina 2 urtetik 5 urtera luzatu da, eta helduentzako prezioa 16 urtetik gorakoek barik 18 urtetik gorakoek ordaindu beharko dute. Gainera, 64 urtetik gorakoentzako sarrera berri bat sortu da, merkeagoa. Orain arte, prezio ezberdina zuten lanegunetako edo jaiegunetako sarrerek, eta orain desberdintasun hori ezabatu egin da.

Azkenik, familia abonua kalkulatzeko modu berria ezarri da; ondorioz, gaur egun dauden familia mota ezberdinak aintzat hartuko dira eta ezabatu egingo dira orain arte zeuden desberdintasunak. Hala, adibidez, senar-emazteak edo izatezko bikoteak eta lotura ofizialik gabeko bikoteak ez dira desberdinduko. Hala, familia abonuatik ordaindu beharreko kopurua kalkulatzeko, familia osatzen duten pertsona bakoitzari dagokion abonua prezioen batura egingo da, bakoitzaren adina kontuan hartuta, baina hurrei dagozkien prezioek %50eko deskontua izango dute. Familia bat herritarrek eta herritarrek ez direnek osatzen badute, pertsona bakoitzari dagokion tarifa aplikatuko zaio.

Udalekuen tasak arautzen dituen ordenantza

Udalekuen tasei dagokienez, inguruko herrietako udalekuetako prezioen aldean oso altuak izan dira orain arte, eta udalekuetako erabiltzaileen gurasoek jaista proposatu zioten Udalarari.

Hori dela eta, maiatzeko osoko bilkuran tasak aldatu dira eta horrela geratu dira:

UDALEKUEK TASAK <i>Tasa de las colonias</i>			
	LEHEN Antes	ORAIN Ahora	
	Ume bakoitzak Cada niño/a	Ume bat Un/a niño/a	Bigarren eta hurrengoak Segundo/a niño/a y siguientes
Aste bat <i>Una semana</i>	65,00 €	40,00 €	30,00 €
Aste bi <i>Dos semanas</i>	130,00 €	68,00 €	51,00 €

EL AYUNTAMIENTO HA MODIFICADO VARIAS ORDENANZAS FISCALES

El Ayuntamiento de Areatza ha modificado las ordenanzas fiscales referentes a las colonias infantiles, a las tasas para acceder a las piscinas y al Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO).

Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras

En Areatza, el tipo de ICIO hasta ahora era del 5%, el más alto que permite la Norma Foral 10/1989. Como consecuencia de la Inspección Técnica de Edificios (ITE), este año será necesario realizar obras en muchos edificios. Algunas obras serán recomendaciones y tendrán un plazo de ejecución largo; sin embargo, en otros casos, las obras serán obligatorias y habrá que realizarlas en un plazo muy corto. En estos últimos casos, el tipo del impuesto será del 2%. Para beneficiarse de esta bajada de tipo, será necesario que en el informe conste que las obras son de carácter inmediato, muy urgente o urgente.

Tasas de las piscinas municipales

En la aplicación de las tasas vigentes hasta este año existían varias deficiencias, como el hecho de que no se recogiera la existencia de nuevas modalidades de unidad familiar. Así, en el caso de una pareja separada con custodia compartida de sus hijos e hijas no estaba claro cómo debían abonar su entrada, o como en los supuestos de parejas sin vínculo legal alguno con hijos e hijas. Para ello se ha realizado un proceso de trabajo du-

rante meses, en los cuales se ha abierto un plazo para que cualquier persona interesada pudiera presentar proposiciones; no se ha presentado ninguna propuesta alternativa.

Con las nuevas tasas, por un lado, se ha ampliado la edad para la entrada gratuita desde los 2 hasta los 5 años, y se aplicará el precio de persona adulta a partir de los 18 años, en vez de los 16 años. Además, se ha creado una nueva entrada de precio reducido para las personas mayores de 64 años. Por otro lado, se ha unificado la distinción de entradas entre días festivos y laborales.

Por último, se ha establecido un nuevo sistema para calcular los bonos familiares; de esta manera, se tendrán en consideración las nuevas configuraciones familiares que hoy en día conforman nuestra sociedad, uniformando, por ejemplo, las parejas sentimentales sin ningún certificado oficial, las parejas de hecho y los matrimonios. Las familias con hijos o hijas menores de edad podrán solicitar el abono familiar. El importe del abono se calculará sumando los abonos correspondientes a las personas que forman la familia, de acuerdo con su edad, pero los correspondientes a hijos o hijas tendrán un descuento del 50%. Si en la familia hay personas residentes y no residentes, a cada persona se le aplicará la tarifa correspondiente.

Colonias infantiles

En cuanto a las tasas de las colonias infantiles, hasta ahora han sido más altas que en otros municipios del entorno, y además, varios padres y madres propusieron al ayuntamiento bajarlas. Por lo tanto, se decidió hacer una modificación, y se aprobó en el último pleno.



IKASTURTE AMAIERAKO TOPAKETA EGIN DU ARRATIAKO EMAKUMEEN JABEKUNTZA ESKOLAK

Arratiako Emakumeen Jabekuntza Eskolak ikasturte amaierako topaketa egin zuen Lemoan 2017-2018ko balantzea egin eta datorren ikasturterako proposamenak batzeko. Metodologia parte-hartzailea baliatuta, pasa den ikasturteari dagozkion hainbat alderdi baloratu zituzten eskolako parte-hartzaileek: besteak beste, ordutegiak, gaiak, dinamizatzaileak, propaganda eta giroa.

Izan ere, Jabekuntza Eskolaren antolatzaileek ezinbestekoa ikusten dute eskolan parte hartzen duten emakumeek ere antolakuntzan parte hartzea; "Jabekuntza Eskolaren arrakasta bertan parte hartzen duten emakumeek ateratako esperientziak baldintzatuko du", nabarmendu dute.

Balorazioa egiteaz gain, bestelako alderdi batzuk lantzeko ere baliatu zen topaketa: "gure artean ezagutzeko, harremanak sortzeko, esperientziak partekatzeko, zaintzeko eta, azken batean, saretzeko", azaldu dute.

Azkenik, egunari amaiera emateko, Virginia Imaz pailazoaren "clownklusioak" entzun zituzten eta musikarekin girotutako mokaduarekin gozatu ahal izan zuten.

LA ESCUELA DE EMPODERAMIENTO DE MUJERES DE ARRATIA CELEBRÓ EL ENCUENTRO DE FIN DE CURSO

La Escuela de Empoderamiento de Arratia celebró en Lemoa el encuentro de fin de curso. A través de una metodología participativa, se valoraron distintos aspectos del año escolar como horarios, temas, personas dinamizadoras, publicidad y ambiente, y se recogieron propuestas para el curso 2018-2019.

La Escuela de Empoderamiento considera imprescindible la participación de las mujeres que han ido a los talleres y que se sientan parte de la organización; "es importante tener en cuenta experiencias de las mujeres que han tomado parte", han remarcado.

Además, la Escuela de Empoderamiento ve el encuentro "como una oportunidad de conocerse, de relacionarse, de compartir experiencias, de cuidarse mutuamente y, en definitiva, de hacer redes".

Para cerrar el acto, se pudo disfrutar de la clown Virginia Imaz y de un lunch con animación musical.



JAKIN-MINA PROIEKTUAN PARTE HARTU DUTEN ARRATIA BHI-KO ZAZPI IKASLETATIK LAU AREATZAKOAK DIRA

Azaroan hasi eta martxora bitartean, Jakiunde (Zientzia, Arte eta Letren Akademiak) hainbat hitzaldi eskaini ditu unibertsitatean lantzen diren gai ugari jorrazteko, Jakin-mina proiektuaren barruan. Hitzaldi ziklo horietan institutu bakoitzeko DBH 4. mailako ikaslerik onenak har dezakete parte, eta oraingo honetan Igorreko Institututik aukeratutako zazpi ikasletatik lau aretzarrak izan dira.

Jakin-mina proiektuan parte hartzeko deialdia ikasturte hasieran igortzen da ikastetxeetara, eta aurtengoa zazpigarren edizioa izan da. 3 ziklo eskaini dira Bilbon, bakoitza 5 hitzaldiz osatua; besteak beste, gaixotasun arraroak, literatura, matematika, musika, programatzailer berriak, garuna edota fosil-aztarnekin lotutako gaiak jorratu dituzte. Hitzaldiak beren arloan espezializatutako puntako profesional, irakasle eta ikertzaileek eskaintzen dituzte, ostiral arratsaldeetan, Bilboko Deustuko Unibertsitatean, Arriaga Antzokian eta UPV/EHUko Bizkaia Aretxean.

2017-2018ko edizioan parte hartu zuten ikasleek diploma bana jaso zuten maiatzean, beraien parte-hartzearen ziurtagiri moduan.

Areatzako udalerraren kasuan, oso albiste pozgarria da aukeratutako zazpi ikasleetatik lau gure herrikoak izatea; izan ere, Areatzako Eskolan aplikatzen den metodologia ez da Arratiako beste eskoletan aplikatzen den metodologia bera, eta horren ondorioz, batzuetan, sistema kritikatu egiten da. Aitzitik, lorpen honek erakusten du Areatzako Eskolako metodologiak ondo baino hobeto funtzionatzen duela eta gure eskolan ikasitako ikasleek gainerako herrietako ikasleekin adina gaitasun eta ezagutza dituztela.

Areatzako Udalak zorianak eman nahi dizkie aipamena lortu dutenei eta gainerako ikasle oro ere animatu nahi du bidean gogor ekin dezan.

LA MAYORÍA DE ESTUDIANTES DEL INSTITUTO QUE HAN PARTICIPADO EN JAKIN-MINA SON VECINAS DE AREATZA

Jakin-mina es una iniciativa organizada por Jakiunde (Academia de la Ciencia, el Arte y las Letras), dirigida al alumnado de 4º de la ESO que ofrece numerosas charlas acerca de temas universitarios, con el fin de fomentar la curiosidad entre las personas jóvenes. En dichos ciclos formativos pueden participar los/as mejores alumnos/as del último curso de la ESO, y de las siete personas seleccionadas este año en el Instituto de Igorre cuatro han sido vecinas de Areatza.

La convocatoria para participar se envía a todos los centros escolares a principio de curso, y este año se ha celebrado la séptima edición, que ha estado conformado por tres ciclos de cinco conferencias repartidos entre noviembre y marzo. Se han tratado temas como, por ejemplo, la investigación de las enfermedades raras, matemáticas o programación.

Para el municipio es una muy buena noticia que cuatro de las siete estudiantes hayan sido de Areatza, ya que la metodología de nuestra escuela se suele criticar a menudo por ser distinta a otros centros de Arratia. Esta noticia pone en evidencia el buen funcionamiento de dicha metodología.

El Ayuntamiento de Areatza quiere felicitar a las estudiantes que han logrado la mención y animar a todos y todas las demás para que sigan trabajando.

EKAINEAN "ENDREDETAN" IBILI DA HERRIA

Ekainaren lehen hasi eta 21era bitartean, "Endredetan" ibili da herria. Zaztaparrak elkarteak antolatuta, ludoteka eta gaztelekuko ikasturtea amaitu eta udaleku irekiei ekin aurretik adin guztietako herritarrei zuzendutako aisialdirako hainbat ekintza egin dira Endredetan ekimenaren barruan.

"Kalea eta inguru naturala hartu ditugu espaziotzat, eta jolasa eta harremanak izan dira ardatz", azaldu dute elkarte-koek. Zaletasun ezberdinak dituzten herritarren arteko aliantzak, elkartrukeak, ezagutzak eta bizikidetzak lantzea izan da helburuetako bat, eta horretarako kultura, kirola eta naturarekin lotutako hainbat ekintza eskaini dira. Besteak beste, mahai-jokoak, bizikletak puntuan jartzeko tailerra, Iturrimorroko parkearen eta errearen garbiketa, ibilaldiak eta zinema familiar egon dira aukeran. Sakramentinoetako parkean merienda herrikoia eginda amaitu zen ekimena hilaren 21ean.

ACTIVIDADES DE OCIO HAN INUNDADO AREATZA EN JUNIO

Al finalizar el curso de la ludoteca y el gazteleku y antes de empezar con las colonias infantiles, Zaztaparrak organizó la iniciativa Endredetan en nuestro municipio, una iniciativa de ocio dirigida a todos los públicos. "Los principales ejes han sido el juego y las relaciones", han explicado, y uno de los objetivos ha sido forjar las alianzas entre los/as vecinos/as, compartir conocimientos y trabajar la convivencia. Para ello se han llevado a cabo distintas actividades como juegos de mesa, taller de puesta a punto de bicicletas, limpieza del parque de Iturrimorro y del río, paseos y cine en familia. Como guinda final, se organizó una merienda en el parque de los Sacramentinos.

HERRITARREK ESKATUTA, UDAL IKASTAROEN IRAUPENA LUZATU EGINGO DA

Udalak eskaintzen dituen zenbait ikastaroetako ikasleek eskaera egin diote Udalari ikastaroen iraupena luza dadin. Udalak zumba, GAP, gazteentzako zumba, crossfit, pilates eta yoga eskaintzen ditu eta orain arte urrian hasi eta maiatzean bukatzen ziren.

Horrenbestez, herritarren eskaera aintzat hartu da eta ikasturtea luzatu egingo da datorren ikasturtetik aurrera. Oraingo ikasturtearen kasuan ezinezkoa izan da aurtengo aurrekontua dagoeneko itxita dagoelako, baina 2019ko aurrekontuan gastu hau kontuan hartuko da eta, horrenbestez, ikasturtea luzatu egingo da ekainaren 15 aldera arte.

SE ALARGARÁ LA DURACIÓN DE LOS CURSOS A PARTIR DE OCTUBRE

El Ayuntamiento de Areatza va a alargar la duración de los cursos que ofrece en la nueva temporada, ya que así se lo han solicitado los/as usuarios/as. Hasta ahora, los cursos comenzaban en octubre y terminaban en mayo. En el curso anterior no se han podido alargar porque los presupuestos estaban cerrados, pero el ayuntamiento lo tomará en cuenta a la hora de diseñar los presupuestos para el 2019.

EKAINAREN 25EAN HASI DIRA UDALEKUAK

Ekainaren 25ean hasi eta uztailearen 6ra arte udalekuez gozatzeko aukera izan dute 2006. eta 2013. urteen artean jaioetako Areatzako umeek. Aurten, Zaztaparrak elkarteak antolatu ditu udalekuak; ludoteka eta gaztelekua kudeatzen dituen elkarte bera da.

Astebeterako edo bi asteetarako izena emateko aukera egon da, eta egin dituzten ekintzen artean honako hauek nabarmendu behar dira: igerilekura irteera, jolas kooperatiboak, egun osoko txangoak, ginkana erraldoia eta sormen tailerrak.

Berrikuntzak prezioetan

Aurten, berrikuntza bezala, merkeagoa izango da udalekuetan izena ematea. Izan ere, Udalak badaki udalekuen zerbitzua lana eta familia uztartzeko lagungarria dela, eta gainera, aurreko urteetan gurasoek prezioak jaisteko eskaera egin zuten. Udala ordenantzak eguneratzen ari dela aprobetxatuta, udalekuei dagokien tasa moldatzea erabaki da. Hala, astebeterako izena ematea 40 euro kostako da lehen umearen kasuan eta 30 euro bigarren umetik aurrera. Bi asteetarako izena eman nahi duenak kostu osoaren %15eko deskontua izango du.

LAS COLONIAS INFANTILES HAN COMENZADO EL 25 DE JUNIO

Los/as niños/as nacidos entre 2006 y 2013 han podido disfrutar de las colonias abiertas entre el 25 de junio y el 6 de julio, donde no han faltado juegos cooperativos, excursiones y talleres de creatividad. La entidad encargada de gestionarlo ha sido Zaztaparrak, la misma empresa que se encarga de la ludoteca y el gazteleku.

Novedades en los precios

El ayuntamiento conoce la importancia que tiene este servicio para la conciliación, y los padres y madres han pedido más de una vez rebajar el precio. Es por ello que matricular al primer hijo/a para una semana tendrá un coste de 40 euros, mientras que en el caso del segundo participante y los siguientes el precio será de 30 euros. La matrícula para dos semanas tendrá un descuento del 15% del coste total.



EUSKARALDIA AREATZAN AURKEZTU DA

Maiatzaren 4an Euskaraldia aurkeztu zen Areatzan. Karmelo Ayesta “Goza daiteke gehiago, euskaldun baten hizkuntza bidaia” liburuaren egileak hartu zuen parte aurkezpenean eta ekimena zertan datzan azaldu eta beste udalerrri batzuetako esperientzien berri eman zuen. Horrez gain, antolaketa lanetan hasteko boluntarioek ere izena emateko aukera izan zuten.

Zer da Euskaraldia?

Euskal Herriko hainbat herritan hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen egitasmoa da Euskaraldia, betiere euskararen erabilera areagotzeko. Ekimena hamaika egunez garatuko da, aurtengoa zaroaren 23tik abenduaren 3ra, hain zuzen ere, eta hizkuntza ohiturak aldatzen saiatzeko bi rol eskaintzen dira aukeran, Ahobizi eta Belarriprest, eta parte hartzaile bakoitzak nahi duen rola hautatu dezake. Ahobiziek ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz esateko konpromisoa hartuko dute, eta horrez gain, ulertzen duenari euskaraz egingo diote, nahiz eta hark erdaraz erantzun. Belarriprestek, berriz, beraiei euskaraz hitz egiteko eskatuko dute, ulertzen baitute, nahiz eta agian erdaraz erantzungo duten.

Nola parte hartu

16 urtetik gorako herritarrei zuzendutako ekimena da. Irailean izena emateko epea zabalduko da, eta horren nondik norakoak azaltzeko behar besteko informazio zabalpena egingo da aurrerantzean. Izena ematen dutenek prestakuntza saioak jasotzeko aukera izango dute iraila eta azaroa bitartean.

Euskaraldia Euskalgintzako hainbat eragilek elkarrekin antolatutako ekimena da, eta besteak beste aipa daitezke Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa, Topagunea, AEK, Euskaltzaindia, UEMA, EUDEL, EHU/UPV edota Argia eta Berria komunikabideak. Horrez gain, egitasmoa Euskal Herriko ehunka herritan baino gehiagotan egingo da; gure inguruari dagokionez, Zeanuri, Igorre, Dima zein Zeberio udalerrietan ere ospatuko da. Proiektuaren informazioa jasotzeko webgune hau kontsulta daiteke: euskaraldia.eus.

PRESENTACIÓN DEL EUSKARALDIA EN AREATZA

El 4 de mayo tuvo lugar la presentación del Euskaraldia en Areatza, de la mano de Karmelo Ayesta, el autor del libro “Goza daiteke gehiago, euskaldun baten hizkuntza bidaia”. En la charla explicó en qué consiste la iniciativa además de contar experiencias de otros pueblos. También hubo la oportunidad de apuntarse como voluntario/a para la iniciativa.

Euskaraldia tiene como objetivo cambiar los hábitos de lenguaje a favor del uso del euskera. La iniciativa tendrá lugar durante once días, desde el 23 de noviembre hasta el 3 de diciembre. Durante esos días los/as participantes podrán escoger entre dos roles: Ahobizi y Belarriprest. Los/as Ahobizis hablarán en euskara a los/as que entienden y los/as Belarriprest pedirán a sus interlocutores que les hablen en euskera aunque tal vez les respondan en castellano.

Cómo tomar parte

Es una iniciativa dirigida a mayores de 16 años. En septiembre se abrirá el plazo para apuntarse, y los/as voluntarios/as tendrán la oportunidad de acudir, si así lo desean, a sesiones de formación entre septiembre y noviembre.

Euskaraldia es una iniciativa promovida por numerosos agentes y se va a llevar a cabo en más de cien pueblos, entre ellos, en Zeanuri, Igorre, Dima y Zeberio. Se puede obtener más información acerca del proyecto en euskaraldia.eus.

MATRIKULAREN %100 ORDAINDUKO DIE UDALAK EUSKARA IKASLEEI

Euskara ikasteko diru laguntzak handitzea erabaki du Areatzako Udalak. Hala, orain arte matrikularen gastuaren %80 ordaintzen zuen Udalak diru laguntza bidez, eta hemendik aurrera, matrikularen kostu osoa finantzatuko du. Izan ere, eskaera hori egin zion Udalarik Euskara Batzordeak, “arlo ekonomikoa ez dadin oztopo izan euskara ikasi nahi dutentzat”.

Gogoratu behar da, bestalde, euskara ikasi nahi duenak Areatzan bertan duela horretarako aukera, AEK euskaltegiak eskaintzen dituen eskoletan. Horrez gain, euskara ezagutu arren erabilerara hobetzea behar duenak AEK-k berak dinamizatutako Berbalagun taldeetara jo dezake; herrian bertan elkarrekin zuzendutako diru laguntza.

EL AYUNTAMIENTO SUBVENCIONARÁ EL 100% DE LA MATRÍCULA PARA APRENDER EUSKARA

El Ayuntamiento de Areatza ha decidido subvencionar al 100% las matrículas para aprender euskara, accediendo así a la petición realizada desde la Euskara Batzordea; hasta ahora el consistorio subvencionaba el 80% del costo de la matrícula.

Los/as vecinos/as que quieran aprender euskera pueden hacerlo, además, sin salir del municipio, gracias a las clases que AEK ofrece en Areatza. Además, para quienes quieran mejorar la vertiente práctica existen también grupos de Berbalagun o práctica oral.

ANDER UCELAY NAGUSITU ZEN AREATZAKO SAILKAPEN SAIOAN

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udabarriko Faseko sailkapen saioaren agertoki izan zen Areatza maiatzaren 19an. Hainbat bertsozale elkartu ziren udaletxeko areto nagusian, eta saioan parte hartu zuten sei bertsolarien artean Artzentalesko Ander Ucelay nagusitu zen 169,5 punturekin. Hona hemen parte hartu zuten gainerako bertsolariak, jasotako puntuazioaren araberrako hurrenkeran: Garikoitz Sarriugarte (162,5), Asier Alcedo (162), Naroa Torralba (138,5), Xabier Iturraspe (136) eta Markel Baroja (123). Irabazlea eta hurrengo biak, gainera, Udagoieneko Faserako sailkatu dira. Guztira 30 bertsolarik hartuko dute parte finalaren aurretik jokatu den fasean, eta 2016ko finalistak finalaurrekoetan hasiko dira lanean, zuzenean.

ANDER UCELAY GANÓ LA SESIÓN CLASIFICATORIA DE AREATZA

El 19 de mayo Areatza acogió una sesión para la clasificación de Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Numerosos/as bertsozales pudieron disfrutar del acto donde se proclamó ganador Ander Ucelay, natural de Artzentales, con 169,5 puntos. Los/as demás bertsolaris que participaron, ordenados según la puntuación obtenida, fueron los/as siguientes: Garikoitz Sarriugarte (162,5), Asier Alcedo (162), Naroa Torralba (138,5), Xabier Iturraspe (136) y Markel Baroja (123). Además, el ganador y los siguientes dos clasificados han accedido también a la fase que se jugará en otoño.



IPAR OSETIA ETA RUANDAKO TALDEAK FOLKLORE BIZIAN JAIALDIAN

Azken urteetako ohiturari jarraiki, uztailearen 22an Folklore Bizian jaialdia ospatuko da Areatzan, Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldeak nazioarteko hainbat talderekin batera antolatutako egitasmoa.

Aurtengo edizioan Ipar Osetia eta Ruandako taldeek bisitatuko gaituzte. Ruandatik Inyamibwa taldea etorriko zaigu. 1998. urtean sortu zen, eta artearen eta tradizio herrikoien bitartez Ruandako kultura eta etnia ezberdinen arteko bakea eta armonia sustatzea du helburu. Ipar Osetiatik, berriz, “Gorest” Ensemble Folklorique National taldea etorriko zaigu. Zita plazan izango da, iluntzeko 20:30ean.

AGRUPACIONES DE RUANDA Y OSETIA DEL NORTE EN LA EDICIÓN DE ESTE AÑO

Este año el festival Folklore Bizian nos traerá sendas agrupaciones de Ruanda y Osetia del Norte, que nos visitarán el 22 de julio dentro de esta iniciativa organizada por el grupo de danzas Andra Mari de Galdakao.

Concretamente, desde Ruanda llegará la agrupación Inyamibwa, creada para promocionar la paz y la armonía en el territorio a través del arte y las tradiciones. Desde Osetia del Norte, por otro lado, llegará el grupo “Gorest” Ensemble Folklorique National. La cita será en la plaza a las 20:30.

REGUEIFAK ETA BERTSOEK BAT EGIN DUTE BESTE URTE BATEZ

Beste urte batez, inprobisazioak elkartu ditu Galiziako eta Arratiako gazteak. Izan ere, Regueibertso ekimenari esker, maiatzaren 16tik 19ra, Galiziako gazteak izan dira gurean, regueifan hangoak eta bertsotan hemengoak. Amaierako jaia, gainera, Areatzan ospatu zen; Arratia BHIk martxan daukan bertsolaritza proiektuan gero eta Areatzako ikasle gehiagok hartzen dute parte, eta hori dela eta antolatu zen azken jaia gure herrian.

Hain zuzen ere, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketaren egun berean, maiatzaren 19an, goizez, Regueifa txapelketa antolatu zen. Maite Berriozabal aritu zen gai-jartzaile eta Txerra Rodriguez itzultzaile. Galiziako inprobisatzaile gazteek bertso txapelketetan egiten diren antzeko ariketak egin behar izan zituzten: errimak emanda lau lerroko regueifa sortu, gaia emanda abestu eta akordeoiak lagunduta guztien artean inprobisatu. Amaieran, Amaieur Atxa Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalista areatarrak banatu zituen sariak.

REGUEIBERTSO HA REUNIDO A JÓVENES GALLEGOS/AS Y ARRATIANOS/AS

Un año más, la iniciativa Regueibertso ha reunido a los/as jóvenes de Galicia y Arratia entre el 16 y el 19 de mayo, celebrando además su fiesta final en Areatza, ya que cada vez más jóvenes de Areatza se animan a participar en el proyecto de bertsolaritza en el instituto.

El campeonato de Regueifa se celebró el día 19 por la mañana, donde Maite Berriozabal propuso los temas y Txerra Rodríguez actuó como intérprete. Los/as jóvenes improvisadores/as tuvieron que completar ejercicios parecidos a los de los campeonatos de bertso, y los premios fueron entregados por la finalista del campeonato escolar y vecina de Areatza Amaieur Atxa.



INOIZ BAINO ARRAKASTATSUAGOA IZAN DA AURTENGO MUSIK AND BEER

Ekainaren 1ean eta 2an Musik and Beer jaialdia ospatu zen Areatzan, besteak beste, garagardoa, zenbait gastronomia aukera eta nazioarteko musika uztartuz. Antolatuzaileak pozik agertu dira aurtengo edizioarekin, inoiz baino jendetsuagoa eta arrakastatsua izan baita.

Ostiral iluntzean eman zitzaion hasiera egitaruari, kaineruak irekiz eta prost! eginez. Ondoren The Old Timey String Band taldeak kontzertua eskaini zuen eta bederatzia aldera A Contra Blues taldearen txanda iritsi zen. Hamaiketan, berriz, The Buttshakers talde frantsesak emanaldi izugarria eskaini zuen gaua bukatzeko. Gauean zehar, horrez gain, Sandra Lejarzaren baserriko hanburesak dastatzeko aukera eskaini zen plazan eta txosnan bost garagardo mota desberdin proba zitezkeen.

Hurrengo egunean, ekainaren 2an, Bilbaomusika eta Zubiaur Musika Eskolako ikasleen kontzertuaz gozatu ahal izan zen goizean, eta eguerdi aldera ketutako produktuen eta garagardoen maridajea lantzeko saioa egin zen plazan, baita Kaitxo txokolata eta garagardoen maridajea dastatzeko saioa ere.

Ondoren, koktelak prestatzen aditua den Jessica Gilen eskutik konbinatu klasikoak eta garagardodunak dastatzeko tailerra egin zen erreka pasealekuan. Jarraian, leku berean Munduko II. Garagardo Kupelen Jaurtiketa Lehiaketa jokatu zen, musikari lekua egin aurretik.

Hala, 18:00etan entzun ziren lehen doinuak, Confluence musika taldearen eskutik. 20:00etan Anauten emanaldiaren txanda izan zen eta ondoren iritsi zen egitarauko talde nagusia, Laurence Jones. Britainiarrak emanaldi izugarria eskaini zuen gurean, blues eta rock doinuak interpretatuz. Gauerdian Bilboko Priscilla Band taldeak itxi zuen programazioa, dantza egiteko erritmoak eskainiz. Bidenabar, Martin Ortega Muro marrazkilariak taldeen irudiak egin zituen zuzenean eta egun guztian zehar Sandra Lejarzaren zein Eskatza ta mahatsa foodtruckeko eskaintza gastronomikoak dastatu ahal izan ziren.

Udalaren ekarpena

Udalak bere gain hartutako gastuen kopurua 5.000 euro ingurukoa da, kostu osoaren %15,4.

MUSIK AND BEER, MÁS EXITOSO QUE NUNCA

Los días 1 y 2 de junio se celebró en nuestro municipio el festival Musik and Beer, donde se fusionaron la cerveza, la oferta gastronómica y la música, entre otras cosas. La organización se ha mostrado satisfecha con la edición de este año, ya que ha sido más exitosa que nunca.

El programa comenzó el viernes abriendo cañeros y haciendo prost!. Después, fue el turno de los grupos de música The Old Timey String Band, A Contra Blues y The Buttshakers. Además, se pudieron degustar las hamburguesas del caserío de Sandra Lejarza y varios tipos de cervezas.

El día siguiente se ofreció un concierto de la mano de Bilbaomusika y Zubiaur Musika Eskola, y hacia el mediodía, en la plaza se organizaron dos sesiones de maridaje, una de productos ahumados y cerveza y otra de chocolate Kaitxo y cerveza. Posteriormente Jessica Gil ofreció un taller sobre combinados.

Hacia las 18:00 se empezaron a oír las primeras melodías de mano del grupo Confluence, a quien le siguió el concierto de la banda Anaut. Después fue el turno del cabeza de cartel, el británico Laurence Jones, quien aunó ritmos blues y rock. Cerró la jornada el grupo bilbaíno Priscilla Band. Durante toda la jornada Martín Ortega Muro realizó dibujos de las bandas y se pudieron degustar las recetas tanto del foodtruck Eskatza ta mahatsa como de las hamburguesas de Sandra Lejarza.

Aportación del Ayuntamiento

El costo del gasto sufragado por el ayuntamiento es de 5.000 euros aproximadamente, un 15,4% del coste total.



GIRO BIKAINA KARPOKO JAIETAN, DESAFIO ETA GUZTI

Aurten ere giro onean ospatu dira Karpoko jaiak, bi eguneko egitarau osatuarekin. Ohitura bezala, Santi Kurutzera osteratxo eginez hasi zen jaia, lehiaketa gastronomikoko parte hartzaileek Karpon prestaketa lanak egiten zituzten bitartean. Aurten, berrikuntza gisa, gisatu lehiaketarekin batera paella sariketa ere antolatu da. Giroa alaitzeko Areatzako Musika Bandak kalejira egin zuen eta Karpon ere zenbait kantu eskaini zituen.

Herri kirolen desafioa

Bazkalostean, berriz, herri kirolen desafioaren txanda iritsi zen, kasu honetan Uribiarte teko landan. Bertan, bi bikote lehiatu ziren, batetik Mikel Amuriza eta Ibai Milikuak osatutako bikotea, eta, bestetik, Igor Agirregomezkorta eta Jaime Atxak osatutako bikotea. Taldeak hiru diziplinan lehiatu ziren; batetik, 50 kiloko harria 20 aldiz altxatu behar izan zuten parte-hartzaile guztiek (bakoitzak 10 altxaldi); ondoren, bikote bakoitzeko kirolari batek 8 kilometro egin behar izan zituen korrika, Uribiarte teko landan bertan, kasu honetan Igor Agirregomezkortak eta Ibai Milikuak egin zuten; proba hori azkarren bukatzen zuenaren taldekideak belarra mozteari ekin behar zion, 45 minutuz. Atal horretan Igor Agirregomezkortak bukatu zuen azkarren eta, hortaz, Jaime Atxak belarra mozteari ekin zion, kasu honetan segan. Ibai Milikuak bukatu zuenean Mikel Amuriza hasi zen belarra mozten, kasu honetan desbrozadorearekin. Moztutako belarra pisatu eta kalkuluak egin ondoren, Igor Agirregomezkortak eta Jaime Atxak osatutako bikotea izan zen garaile. Parte-hartzaileez gain lantalde zabala izan zen lanean herri kirolen desafioa posible izan zedin. Eguna bukatzeko Luhartz taldeak erromeria eskaini zuen plazan.

Azoka Eguna

Hurrengo egunean, berriz, Areatzako IV. Ganadu eta Artisau Azoka ospatu zen Karpon, Upokolupetza elkarteak antolatuta. Elkartekideek beraien ganaduak jarri zituzten ikusgai, behiak, behorrak eta ardiak, besteak beste. Horrez gain, 16 erakusketa postu ere izan ziren ikusgai, tartean elikagaiak, artisautza produktuak, edariak, dekorazio elementuak, etab. Erraldoien kalejirak giroa alaitu zuen eta baskularen apustuarekin eta zozketarekin bukatu zen egitaraua.

JAIA	GASTUAK
Erraldoiak / Gigantes	700,00 €
Lehiaketa gastronomikoen sariak / Premios de campeonatos gastronómicos	180,00 €
Erromeria / Verbena	2.178,00 €
Hesiak / Vallas	1.258,00 €
Santikurutzeko mokautxoak / Tentempié de Santi Kurutz	114,6 €
Baskula / Báscula	121,00 €
Gorbeialde	121,00 €
Grupo de música Xukelak taldea	423,50 €
GUZTIRA	5.096,10 €

BUEN AMBIENTE EN FIESTAS DE KARPO

Siguiendo la tradición, las fiestas de Karpo comenzaron con el paseo a Santi Kurutz el día 5 de mayo, mientras que los/as participantes de los concursos gastronómicos hacían sus preparativos en Karpo. Este año, junto al concurso de guisado, también se ha celebrado un concurso de paella. Areatzako Musika Banda hizo un pasacalle y ofreció algunas piezas en Karpo.

Desafío de deporte rural

Después de comer, la campa de Uribiarte acogió un desafío de deporte rural. Se enfrentaron dos parejas, una de ellas formada por Mikel Amuriza e Ibai Milikua, y la otra por Igor Agirregomezkorta y Jaime Atxa. El desafío estuvo compuesto por tres ejercicios: primero, todos los participantes tuvieron que levantar una piedra de 50 kilos 20 veces (cada participante 10 levantamientos); después, uno de los miembros de cada pareja tuvo que correr 8 kilómetros, y por último el otro miembro tuvo que realizar un corte de hierba durante 45 minutos (Jaime Atxa en la modalidad de sega y Mikel Amuriza con la desbrozadora). Después de pesar la hierba cortada, Igor Agirregomezkorta y Jaime Atxa se proclamaron ganadores. Además de los deportistas, numerosos/as voluntarios/as actuaron como ayudantes en la tarea, completando una bonita jornada. Para terminar el día, el grupo Luhartz ofreció una verbena en la plaza.

Feria

El domingo día 6 de mayo se celebró la cuarta edición de la Feria de Ganado y Artesanía en Karpo, organizado por Upokolupetza Elkartea. Durante la jornada pudieron verse animales como, por ejemplo, vacas, caballos y ovejas, así como alimentos, productos artesanales y elementos decorativos. Un pasacalle animado por los/as gigantes, la apuesta de la báscula y un sorteo despidieron las fiestas hasta el año que viene.



SUA, IKUSKIZUNA ETA MERIENDA SAN JUAN BEZPERAN

Azken urteetako ohiturari jarraituz, San Juan bezperako sua piztu zen Zubizarra. Suaren aurretik, merienda jateko bildu ziren herritarrak: sardinak, urdaia eta txokolatea dastatzeko aukera izan zuten gau bereziari behar bezalako ongietorria emateko. Antolakuntzan eta prestaketa lanetan aritutako herritarrei bereziki eskerrak eman nahi dizkie Udalak.

Zubizarraz gain, herriko beste leku batzuetan ere piztu zuten sua herritar batzuek, besteak beste, Iturrimorron.

Gaua biribiltzeko, Zirkozaurre konpainiak "Akelarre" ikuskizuna eskaini zuen plazan, musika, akrobaziak eta dantza uztartuta; une ederra pasatu zuten gerturatu zirenek.



ESPECIAL VÍSPERA DE SAN JUAN

Un año más, la tradicional fogata de la víspera de San Juan ha tenido lugar en Zubizarra, así como en otros lugares, como Iturrimorro. Antes del fuego, se pudo disfrutar de la típica merienda en Zubizarra; el Ayuntamiento quiere agradecer enormemente a los/as vecinos/as implicados/as en las tareas de organización y preparación por la labor realizada.

La guinda final la puso la compañía Zirkozaurre con el espectáculo que ofreció en la plaza, "Akelarre".

ARRATIAKO MUSIKA ESKOLA BISITATU DU VALENTZIAKO LA UNIÓN MUSICAL ESKOLAK

Apirilaren 7tik 9ra Valentziako La Pobla Llargako La Unió Musical musika eskola etorri zen Arratiako Musika Eskolako ikasleengana elkartruke programaren barruan. Helburu bikoitza izan zuen bisitak; alde batetik, musikari dagokiona; eta bestetik, kulturala eta soziala. Hori dela eta, ikasle bisitariak ingurua ezagutzeko aprobetxatu zuten egonaldia, izan ere, Gaztelugatxera eta Bilbora joan ziren. Gainera, valentziarrek bertoko ikasleen etxeetan egin zuten lo, eta hori dela eta, gure ohiturak, hizkuntza eta gastronomia gertutik ezagutzeko aukera paregabea izan zuten.

La Unió Musicaleko kideek kontzertu bi eskaini zituzten, bata Areatzako komentuan eta bestea Igorren. Konposatzaile valentziarren piezak eskaini zituzten La Pobla Llargako musikari gazteek; programaren parterik handiena bete zuten erreperatorio berritzailea eskainiz. Arratiako Musika Eskolakoek osatu zuten emanaldia, pieza klasikoekin. Amaitzeko, eskola bietako ikasleek kantu bat interpretatu zuten elkarrekin.

Elkartrukearen emaitzarekin oso pozik agertu dira musika eskoletako kideak, eta datorren urteko aste santua iristeko irrikaz daude, orduan arratziarrek La Pobla Llargako bisitatuko baitute.

LA ESCUELA DE MÚSICA LA UNIÓN MUSICAL (VALENCIA) HA VISITADO ARRATIA

Desde el 7 al 9 de abril 40 alumnos/as de la banda juvenil de la Unió Musical de La Pobla Llargu, en Valencia, visitaron a Arratiako Musika Eskola, dentro del programa de intercambio. El objetivo no era sólo musical sino también cultural y social, por lo que durante su estancia el alumnado visitante aprovechó para conocer el entorno y se alojaron en las casas de los/as alumnos/as de la Arratiako Musika Eskola.

Durante su estancia ofrecieron dos conciertos, uno en el convento de Areatza y otro en Igorre. La mayor parte del programa corrió a cargo de la banda juvenil de La Pobla Llargu, que ofreció un repertorio novedoso a cargo de compositores/as valencianos. El programa lo completaron los/as alumnos/as de Arratia, ofreciendo un repertorio de música tradicional; para culminar, las dos escuelas interpretaron una canción en conjunto.

El resultado de la experiencia ha sido muy positivo, por lo que ambas partes esperan con impaciencia la próxima semana santa en la que el alumnado de Arratia visitará La Pobla Llargu.

areatza
lantzen



Areatzako Udala



@areatzako_udala